

TALAIAN

EHLG eta Iparraldearen etorkizuna

Prefeturak eskatuta, Baionako auzitegiak joan den ostegunean Euskal Herriko Laborantza Ganberako Mixel Berhokoirigoin lehendakaria epaitu zuen, izena eta funtzio publikoa usurpatzeagatik. Frantziako legeak dio departamendu bakoitzeko badela Chambre d'Agriculture bat eta beraz, ezin dela EHLG moduko erakunderik izan. Epaiaketaren emaitza ez dugu ezagutzen, baina hainbat hausnarketa egin dezakegu. Ez dute epaitu Laborantza Ganberaren izena eta egitekoa. Epaitu dutena da, erakunde publikoek onartzeko, Euskal Herriko organo baten alde egin den mugimendua. Epaitu dutena da, eraikuntza nazional zibilerako estrategia osoa. Azken finean epaitu dutena da Iparraldearentzako erakunde propioaren aldarrikapena.

Epaia epai, Ganberak herritarren babes handia du: herriko etxetako 700 zinegotzi, alkateen eta departamenduetako kontseilarien gehiengo osoa, eta erregioetako kontseilari erdiak. 7.500 pertsona baino gehiagok babestu du Laborantza Ganbera hainbat ekitalditan. Baionako epaietan Hegoaldeko 2.000 pertsona izan ziren. Epaietarako Ganbera zigortu arren, herritarrek babesten segiko dute. Iparraldearen eraikuntza nazionalaren etorkizunarentzat oso garrantzitsua da urrats hori. Baditu aldarrikapen gehiago: Departamendua, euskararen ofizialtasuna eta unibertsitatea. Prefeturak badaki hori dena; dirudienez atzerabueltarik ez duen prozesua geldiarazi nahi du.

Juan Mari Arregi

Alferrikako lana

HASERRE ziren joan den astean Debarrenako eta Busturialdeko euskara teknikari bat baino gehiago. Zikloia zela eta SOS Deiaketik eta Osakidetzaatik Udaletara oharra bidali zuten, herritarrentzako aholkuekin. Biak gaztelaniaz. Euskara teknikari batek dio, e-postaz, presaka eta korrika ibili zela horiek itzultzen, eta era berean, imajinatzen ari zela inguruko zenbat Udaletan ariko ziren ohar berberak euskaratzen. Jendea, denbora eta dirua alferrik galtzen. Jaurlaritzak bietara bidali izan balitu bi oharrak!, zioen euskara teknikari amorratuak.

Testu bera behin eta berriz itzultzeak itzulpen memoriak ekarri dizkit gogora. 2163. zenbakian (2008-12-14) itzulpen memoriez egindako artikuluan azaldu genuen administrazioan, batik batik, Udaletan nola oso-oso antzeko testuak itzultzen diren, eta nola gero dirua inbertitzen den itzulpen memoriak sortzeko, askotan alboko Udalekoaren tankerakoak.

Joan den astean bi eguneko jardunaldiak egin zituzten *Erabilera planak herri administrazioetan* gaitzat hartuta. 200dik gora lagun bildu ziren, eta han-hemenka irakurri ahal izan dugunez, euskara teknikariek eta itzultzaileek administrazioen arteko sarearen oinarriak sendotuko diren itzaropena dute.

BAHEA

Edorta Aranak Hamaika ikus-entzuteko jaiok-en esanak: "Atzo iluntzean [urtarrilak 27], Teleberrin euskarazko berri bat sartu zitzaion, tupustean. Ezohikoa konpondu guran, bideoa bere horretan moztu eta aurkezleak aurreraxeago gaztelarazko bertsioa eskaini ahal izateko ahaleginak egingo zituztela adierazi zuen (...) ETB2ko albistegietan ez omen da onargarri euskaraz entzutea. Hori akats baten ondorio besterik ezin da izan!"



Kanpaina aspergarrien lerro artean

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

HAUTESKUNDE kanpainak aspergarriak direla jaurti zuen duela gutxi Begoña Erraztik Euskadi Irratiko tertulian. Rikardo Arregik *Deia*-ko zutabea jaurtitako amuari –aspergarriak direla baiesten zuen– gogotsu heldu zion EAko lehendakari ohiak. Pentsa daiteke oso gutxi pasa dela pulpitutik berdintsu aritzen zenetik; eta pentsa daiteke baita ere hobe horrela aitortzea, publikoki autokritika eginez, ahoan bilorik gabe.

Azken finean, horixe bera da herriarren gehiengo zabalak kazkezurrean jira-biran dabilena. Zer esanik ez hedabideetako erredakzioetan, eta bereziki hauteskunde kanpaina jarraitu behar duten gehienen artean. Berdin da politikariei zer galdetu, hauek berean darraite, eta komeni arte asperduraraino eramango dute kazetaria eta, beraz, irakurle edo ikus-entzulea.

Baina politikariak ez daude beti zozokeriatan ibiltzekotan eta badakite agertu behar denean serio egin behar dela kuku eta madrildar kazetariekin bada hobe, uhinen epizentrotik indar handiagoa egiten dela. Eta orduan Maria Antonia Iglesias kazetari azkar bezain lotsagabea dator kanpainari ate joka, azalean eta mamian gertatzen diren horiek arras desberdinak direla agertuz, liburu salmenta elikatze prest, herritarrari kanpaina alaitu eta bestelako helburuekin ere bai akaso.

Iñigo Urkulluk Juan Jose Ibarretxeri buruz esandakoak izan dira entzutetsuenak, baina halakoz josia dago Iglesiasen liburua. Eta karnabal sasoiaren bagaude ere, bi buruzagi jeltzaleen berba onek ozta-ozta mozorrotu ahalko dituzte EAJren baitako ika-mikak. Kontsultaren garaian izandako irizpide eta adierazpen ia kontrajarriek, behin baino



gehiagotan agertu zituzten bien arteko desberdintasunak.

Iñaki Iriondok joan den igandean *Gara*-n azaltzen zuen 2008ko maiatzaren 23an Ibarretxe, Urkullu, Unai Ziarreta eta Javier Madrazoren arteko bazkaria egin zela Ajuria Enean. Kontsultarako galderak prestatzeko garaia zen eta, Iriondoren esanetan, EBBk erabakia zuen jada galderetako batek ETAren arbuizatzea eskatuko

Eta orduan Maria Antonia Iglesias kazetari azkar bezain lotsagabea dator kanpainari ate joka, azalean eta mamian gertatzen diren horiek arras desberdinak direla agertuz

zuela. Bilera horretan, ordea, Ibarretxek galderak jaurti zituen –ETA aipatzen ez zutenak– baina Urkulluk ez ei zuen tutik esan eta, kazetariak dioen legez “badira horren lekukoak”.

Idatzitako analisietan askok galdetu diote beren buruei ea nola den posible politikariak halako amarruetan galtzea, eta L.R. Aizpeolea *El País*-eko kazetariak bere hipotesia azaldu zuen ganbarapeko jardunean. Hark zioen, Iglesiasek elkarrizketan asko estutzen dituela politikariak, hauek ohiko prentsaurrekoetako diskurtsoarekin hasten direla eta kazetariak alde egiteko mehatxua egiten diela, horiek interesik ez dutela eta abarrekoak aipatuz. Eta orduan elkarrizketatuak erabaki behar duela jarraitu ala ez, eta baietz erabakitzen duela, denek agertu behar ei duten liburu batean berak ere agertu gura delako eta, jakina, horretarako beste era batera jardun behar duela bereganatzen duela.

Gero datoz testuingurua, garai bateko desadostasunak, salmenta, bestelako interesak eta abarrekoak, egiazkoak denak, eta bere testuinguruan kokaturik, ulertu guran dabilenarentzat zantzu emaile eta irribarre sorrarazle.